



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Porno hegemonikoa deseraikitzen

Sexuak tabua izaten jarraitzen du, baina, hala ere, pornografia ugari kontsumitzen dugu. Eta nahiz eta pornoan inoiz baino aniztasun gehiago egon, jendarteak, batez ere, betikoa kontsumitzen jarraitzen du: porno heteronormatiboa eta androzentrista. Gehien egiten dena da, demanda handiena duelako eta gizartearen isla delako. Sozietate kontserbadore batean bizi gara, eta, sexualitateari dagokionez, ugalketa paradigma matxista nagusitzen da. Ondorioz, sexualitate maskulinoa protagonista bakarra da pornografian eta eszena oro sarketan eta zakilean zentratzen dira. Helburua gizonen eszitazioa, gozamina eta asebetetzea dira. Sexualitate femeninoa desagertuta dago eta emakumeak gizonen zerbitzura daude.

Lehendabizi, pornoa, produktu kultural gisa, fikzioa da. Hots, fantasia bat irudikatzen dute, tranpa eta trukoz betetakoa. Bertan agertzen direnak aktoreak eta modelok dira, ez pertsona errealak. Goitik behera depilatzen eta makillatzen dituzte eta gorputz normatiboak dituzte. Esku eta aho txikiak dituzten emakumeak eta zakil izugarri handiak dituzten gizonak aukeratzen dituzte. Haziaren eiakulazioetarako koko esnea erabiltzen dute eta bost minutuko eszena bat grabatzeko orduak ematen dituzte. Beraz, arazoa ez da pornoa ikustea, inolako filtro kritikorik gabe berau sinestea baizik. Izan ere, irreal da. Horregatik, sexu harreman heterosexualek inguruan espektatiba eta beharrian faltsuak eraikitzen dira, baita konplexuak ere.

Gainera, nahiz eta emakumezkoen eta gizezkoen sexualitatea diferentia izan, berdina bezala eta desparekotasunez josita agertzen da. Hala nola, emakumeak eta gizonak aldi berean eszitatzen dira, gizek gogoko dituzten jarrerak eta jokabideekin. Zakila prest dagoenean sarketa egiten da eta gizek eiakulatzen dutenean eszena amaitzen da. Ez da kontuan hartzen emakumeak erabat eszitatuta dauden ala ez penetrazioarako; nahikoa da koitoan oihuka azaltzen badira. Horrekin bate-

ra, egoera umiliagarrian eta menderatu gisa, soilik emakumea irudikatzen da. Baina fantasiak ez dira desioekin nahastu behar. Egoerekin fantaseatzeak ez du esan nahi errealitatean hori egin nahi dugunik. Laburtuz, porno hegemonikoa gizek egin eta gizek erabiltzen dute.

Horrez gain, sentsazioak probokatzea baino, eszitazioa bakarrik bilatzen da. Begirada maskulinoarentzat diseinatuta dauden gidoiak dira; beraz, ez daude oso elaboratuak. Ez baitira beharrezkoak testuinguruak ezta elkarriketak, denak morbosoa direlako. Eta irudi guztiak esplizituak dira, ez dago imajinazioerako batere lekunik. Erotismoak eta sentsualitateak protagonismoa galdu dute, iradokitzea baino exekutatzeko garrantzitsuagoa bihurtu baita. Arazoa ez da pornoa eszitatzea, baizik eta, orokorrean, pornografia hegemonikoak gizek bakarrik eszitatzen dituela, ez duelako emakumeen sexualitatearen aberastasuna aintzat hartzen.

Bukatzeko, argi dago pornoa ez dela pedagogikoa, baina sexu pedagogiarako berau lantzea beharrezkoa da. Pornografia mota asko daude, sexualitatea adierazteko eta disfrutatzeko askotariko ereduak aurkezten dituztenak, hain zuzen. Hortaz, pornoa iraultzailea eta urratzailea ere izan daiteke. Funtsean, pornoa debekatu beharrean, deseraiki egin behar dugu eta merkatuan dauden askotariko alternatibak ezagutarazi. •



Pornoa debekatu beharrean, deseraiki egin behar dugu eta merkatuan dauden alternatibak ezagutarazi. GAUR8